

ESPARRU DOKUMENTUA

AFRIKAN GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEK DITUZTEN ERRONKA NAGUSIAK

DEFENDATZAILEAK
BABESTUZ
JARDUNALDIAK
Afrikako esperientziak

2025eko maiatzak 6 eta 7



JARDUNALDIAK

**DEFENDATZAILEAK
BABESTUZ**

Afrikako esperientziak

2025eko maiatzak 6 eta 7

eLankidetza – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Protection International erakundeak prestatutako dokumentua,
eLankidetzak eskatuta Defendatzaileak Babestuz jardunaldietarako

AURKIBIDEA

1.	Sarrera eta jardunaldien egitura	4
2.	Giza eskubideen defendatzaileei buruz	5
3.	Giza eskubideen defendatzaileen babesari buruzko ikuspegi integrala	7
4.	Afrikako hainbat herrialdetan giza eskubideen defendatzaileek jasandako giza eskubideen urraketak	8
5.	Emakumeen, LGBTIQ+ kolektiboaren eta desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak defendatzea	11
6.	Afrikako giza eskubideen defendatzaileak babesteko mekanismo ofizialak	13
6.1.	Nazioarteko eta eskualdeko babes-mekanismoak	13
6.2.	Babes-politika nazionalak	15
7.	Afrikako giza eskubideen defendatzaileak babesteko gizarte zibilaren egitasmoak	17
7.1.	Koalizio nazionalak	17
7.2.	Afrikako eskualde-sareak	17
8.	Amaierako gogoetak	19
	Erreferentziak	20

1. SARRERA ETA JARDUNALDIEN EGITURA

Afrikako giza eskubideen defendatzaileek gero eta ingurune desafiatzaileagoa dute giza eskubideak sustatzeko eta babesteko ahaleginetan. Beraien lana justizia, berdintasuna, bakea eta ingurumen-jasangarritasuna lortzeko funtsezkoa den arren, defendatzaileek eta haien erakundeei mehatxuak eta jazarpenak jasaten dituzte etengabe, hauen bizitza eta osotasun fisiko eta psikologikoa arriskuan jarriz.

Giza eskubideekin eta nazioarteko elkartasunarekin duen konpromisoan oinarrituta, eLankidetzak giza eskubideen defendatzaileei, horien erakundeei eta sareei lagundu die azken urteetan, bizitzeko eta lan egiteko espazio seguruagoak bermatzen saiatzeko; bereziki, Latinoamerikan eta Kariben. Afrikan ere hainbat egitasmo babestu dituen arren, funtsezkoa da Afrikako kontinentean dauden errealitate anitzei erantzuten dieten babes-estrategia eta mekanismoak buruzko gure ezagutza zabaltzea eta sendotzea, bai eta euskal gizarteak aktibista hauen babes integrala bermatzen nola lagun dezakegun hausnartzea ere.

Testuinguru horretan, Afrikako giza eskubideen defendatzaileek euren esperientziak partekatu ahal izango dituzte *Defendatzaileak babestuz – Afrikako esperientziak* jardunaldietan, 2025eko maiatzaren 6an eta 7an. Jardunaldi hauen bidez, Afrikako defendatzaileei bi eguneko espazio bat eskainiko zaie bizitako esperientziak eta borrokak partekatzeko, defendatzaileen babes indartzeko eta aldaketarako eragile gisa duten zilegitasuna aitortzeko. Bide horretan, eztabaidak Afrikako defendatzaileek dituzten erronka nagusiei helduko die, eremu demokratikoak itxi eta balio sozial ultrakontserbadoreen inposaketatik hasi eta gatazka armatuen indarkeriaraino, baliabide naturalen ustiapen arduragabea ere barne hartuta.

Arreta berezia jarriko zaie giza eskubideen emakumezko defendatzaileei eta sexu-orientazioa eta genero-identitate aniztasuna (SOGI ingelesezko sigletan) defendatzen dituztenei. Izan ere, arrisku handiagoei aurre egin behar baitiete, babes-esparruak integratzaileak izan daitezen eta beren zaugarritasun espezifikoak erantzun diezaieten.

Gainera, eskualde mailako, nazio mailako eta herri mailako babes-mekanismoak aztertuko dira, horien eraginkortasuna baloratzeko eta hobetzeko arloak identifikatzeko.

Elkarrizketa, lankidetzak eta ekintza estrategikoa sustatuz, jardunaldi hauek ezinbesteko urratsa izango dira kontinente osoko giza eskubideen defendatzaileen segurtasuna, erresilientzia eta legimitatea indartzeko, eta, aldi berean, haien beharrak eta errealitateak hobeto islatuko dituzten politikak eratzeke.

2. GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEI BURUZ

Banaka edo beste pertsona batzuekin batera giza eskubideak sustatzeko eta babesteko neurriak hartzen dituzten pertsonak deskribatzeko erabiltzen da *giza eskubideen defendatzaile* terminoa. Giza eskubideen defendatzaileak, batez ere, egiten dutenagatik bereizten dira. Hortaz, zer egiten duten eta zer testuingurutan lan egiten duten deskribatzea da terminoa azaltzeko modurik onena.

Giza eskubideen defendatzaileen lana legezkoa da, eta ordezkatzeko duten gizarte zibilak legitimatzen du lan hori. Egunero eta mundu osoan zehar, giza eskubideen ehunka defendatzailek indarkeria politikoa jasaten dute besteen giza eskubideak defendatzeagatik. Euren segurtasun fisikoa eta mentala arriskuan jartzen dute giza eskubideen urraketen inpunitateari amaiera emateko eta justizia soziala eta bakea sustatzeko.

1998an, **Banakoek, taldeek eta erakundeek giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak sustatzeko eta babesteko duten eskubideari eta betebeharrari buruzko adierazpena** onartu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (aurrerantzean, Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Nazio Batuen Adierazpena). Beste modu batera esanda, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala kaleratu eta berrogeita hamar urtera, eta giza eskubideen defendatzaileei buruzko adierazpen-proiektu bati buruz hogeitaz urtez negoziatu ondoren, azkenean, Nazio Batuek errealitatea onartu zuten: mundu osoan giza eskubideak sustatzen zituzten eta horiek babesten laguntzen zuten milaka pertsona zeudela. Adierazpen inklusiboa da, eta giza eskubideen sustapenarekin eta babesarekin konprometituta dauden pertsonen kopurua eta aniztasuna ohoratzen ditu.

Ba al dago giza eskubideen defendatzailearen kontzeptu globalik?

1 Giza eskubideen defendatzaileei buruzko narratiba orokorrekin defendatzailearen kontzeptu bakar eta abstraktu bat sustatzen dute, errealitate eta testuinguru desberdinak islatzen ez dituenak.

2 Defendatzaile" kontzeptu global eta estandarrak giza eskubideen defendatzaileen irudi simplista eta idealizatuak ekar dezake, batzuetan defendatzaileen desberdintasun eta identitate espezifikoak (adibidez, emakumeak, gazteak, indigenak, afroondorengoak, etab.) itxuragabetzen dituenak.

3 Sarritan, ez dira kontuan hartzen eta despolifizatu egiten dira giza eskubideak defendatzen dituztenen borroka zehazten dituzten egitura materialak, sozialak eta politikoak.

4 Batzuetan, defendatzaileek ez dute beraien burua aintzat hartzen "defendatzaile" kontzeptu orokor horretan; aitzitik, beraien testuinguruan handiagoa duten beste identitate batzuekin identifikatzen dira.

5 Funtsezkoa da giza eskubideen defendatzaileak denborarekin eboluzionatzen duten subjektutzat hartzea, giza eskubideen defentsari buruzko kontzientzia handitu eta beste subjektu eta gizatalde batzuekin harremanak ezartzen dituzten heinean.

6 Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen eta taldeen egunero ikasten eta moldatzen dira beraien ekintzen bidez. Giza eskubideen praktika eraginkorrago eta bidezkoago baterako bilakaera-prozesu baten parte diren hutsegiteak egin ditzakete.

Giza eskubideen defendatzaileak beren ekintzen eta defendatzen dituzten eskubideen arabera definitzen dira, beraien burua giza eskubideen defendatzaile gisa identifikatzen duten ala ez alde batera utzita.

Giza eskubideen defendatzaileak beren ekintzen eta defendatzen dituzten eskubideen arabera definitzen dira, beraien burua giza eskubideen defendatzaile gisa identifikatzen duten ala ez alde batera utzita.

3. GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESARI BURUZKO IKUSPEGI INTEGRALA

➔ Giza eskubideak defendatzeko eskubidea modu askean baliatu dadin ahalbidetzea eta babestea da *Protection International* erakundearen helburua. Hori lortzeko, giza eskubideen defendatzaileak babesteko ikuspegi integrala sustatzen du. Ikuspegiak alderdi ugari ditu, diziplinartekoa da eta etengabe aldatzen ari da. Badira elementu nagusi batzuk, tokiko, eskualdeko eta nazioarteko babeserako esku-hartzeen oinarria osatzen dutenak:

- ➔ **Giza eskubideak defendatzeko eskubidea:** giza eskubideen defendatzailek babesteko eskubideetan oinarritutako ikuspegia sustatzea, defendatzaileak eskubidedun subjektu gisa ikusita, eta ez babestu beharreko objektu gisa.
- ➔ **Babes kolektiboa:** taldea indartuko duten eta banakako segurtasun-neurriez harrago doazen babes-praktika jasangarriagoak ahalbidetuko dituzten estrategia kolektiboak sustatzea.
- ➔ **Babes-sareak:** giza eskubideen defendatzaileen taldeen eta komunitateen artean barneko eta kanpoko elkartasun-sareak indartzea sustatzea, mehatxuei eta erasoei aurre egiteko orduan posizio hobea izan dezaten.
- ➔ **Ikuspegi psikosoziala:** zaintza eta babesa ezin direla bereizi ulertzea. Horrek esan nahi du giza eskubideen defendatzaileek haien borroka eta prozesuen esparruan bizi dituzten inpaktu emozional indibidualak eta kolektiboak landu behar dituztela babes-estrategiek, eta ongizate indibidualerako eta kolektiborako estrategiak integratu behar dituztela, babesaren parte gisa.

4. TESTUINGURU OROKORRA ETA AFRIKAKO HAINBAT HERRIALDETAN GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEK JASANDAKO GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK

Giza eskubideen defendatzaile afrikarrek, sarritan, haien estatuko zein estatuaz kanpoko eragilean jazarpena eta intimidazioa jasan behar izaten dituzte (legez eta legez kanpo). Horrek barne hartzen ditu mehatxuak, zaintza eta atxiloteta arbitrarioak, eta horrek guztiak kaltetu egiten die modu eraginkorrean lan egiteko gaitasuna. Herrialde batzuetan defendatzaileak bahitu eta atxilotzera iritsi dira; ahots independenteekiko tratatu diskriminatzailearen adibide argia da hori. Era berean, baliabide naturalen erauzketa-proiektuen aurka borroka egiten duten ingurumen arloko aktibistek atxiloteta arbitrarioak eta intimidazioa jasan behar izan dituzte.

Giza eskubideen defendatzaileek indarkeria fisikoa eta erailketak jasateko arriskua dute, interes boteretsuei aurre egiten dieten testuinguruetan. Giza eskubideen defendatzaile eza-gunen erailketek (adibidez, [Thulani Maseko](#) **Eswatinin** eta [Martinez Zogo](#) kazetaria **Kamerunen** –azken hori bahitu, torturatu eta erail egin zuten–, biak 2023aren hasieran) agerian uzten dituzte giza eskubideen defendatzaileen hiltzeko arriskuak, erreforma demokratikoen alde egiteagatik eta ustelkeriaren eta nepotismoaren aurka borroka egiteagatik.

Afrikako estatu batzuetan gora egin du autoritarismoak. Ondorioz, neurri murriztaileak aplikatu dizkiete gizarte zibilari, hedabideei eta giza eskubideen defendatzaileei. Espazio zibikoa murrizteak barne hartzen ditu zentsura, kontrol finantzarioa eta finantzaketa esku-ratzeko mugak, eta honako eskubideak mugatzen dituen legedi murriztaileak: adierazpen-askatasunerako eskubidea, elkartzeko askatasunerako eskubidea, protesta egiteko eskubidea eta manifestazio baketsuak egiteko eskubidea. GKE-en gaineko neurri murriztaileak eta oztopo burokratikoek ingurune oso oldarkorra sortzen dute gizarte zibilarentzat.

[CIVICUS Monitor erakundeak 2024an argitaratutako txostenaren](#), arabera, Afrikako espazio zibikoaren egoerak, nagusiki, trabatuta, zapalduta edo itxita jarraitzen du. Espazio zibikoaren urraketa ohikoenak honakoak dira: kazetariak atxilotzea eta horiei eraso egitea; giza eskubideen defendatzaileak eta manifestariak atxilotzea; eta zentsura. **Cabo Verde** eta **Sao Tome eta Principe** nazio uhartetarrek bakarrik dituzte irekita espazio zibikoak. **Botswanaren** eta **Liberiaren** egoera, berriz, zerbait hobetu da, oztopatuta egotetik mugatuta egotera pasatu baita horien sailkapena. Joan den urtean zehar, hainbat herrialderen askatasun zibikoak nabarmen okertu ziren. **Burkina Fason**, oinarrizko askatasunak gogor murriztu ziren 2022ko iraileko kolpe militarren ondoren eta komunikabideak geldiaraztea

eta giza eskubideen defendatzaileak, kazetariak eta oposizioko kideak modu arbitrarioan atxilotzea errazten duten presazko neurrien ondorioz. **Kenyan**, gobernuak neurri zapaltzaile oso gogorrak hartu zituen 2023aren erdialdean eta 2024aren erdialdean herrialde osoan zehar egin ziren protestei erantzuteko. Proposatutako zerga-igoeren eta bizi-kostuaren igoeraren aurkakoak ziren protesta horiek, eta hainbat heriotza eta atxiloketa izan ziren.

Gainera, kontinente osoan ohikoa da estatuak giza eskubideen defendatzaileak eta horien mugimendu eta kolektiboak kriminalizatzea, lege murriztaileen bidez eta arrazoi politikoen-gatiko auziperatzeen bidez. Adibidez, **Kongoko Errepublika Demokratikoan** eta **Kenyan**, giza eskubideen defendatzaileek salaketa faltsuak jaso dituzte, hala nola traizioagatik edo terrorismoagatik, haien lanari zilegitasuna kentzeko eta disidenteak menderatzeko. Esaterako, **Kongoko Errepublika Demokratikoan**, demokraziaren aldeko hainbat aktibista eta oposizioko kideak atxilotu zituzten Ipar Kivu probintzia gatazkatsuko segurtasun-krisiaren gainean arreta deitzeko antolatutako kontzentrazio baketsuetan zehar. 2022aren amaieran, Gomako apelazioko auzitegi militar batek bost urteko espetxe-zigorra ezarri zion [King Mwa-misyo](#), *Lutte pour le changement* (Lucha) gizarte zibileko kideari, «armadari men ez egiteagatik». Izan ere, sare sozialetako argitalpenak erabili zituen agintari militarrek eta polizialak kritikatzeko, ez zirelako gai izan jendea babesteko eta konplizitatea erakutsi zutelako giza eskubideak urratzeko orduan.

Afrikako aktibismo digitalaren gorakada erakusten du aurreko adibideak. Giza eskubideen defendatzaile askok erabiltzen dute aktibismo digitala kontzientzia globala mobilizatzeko eta lineako aktibismo-jardueretan parte hartzeko. Aldaketa horrek erronka berriak ekarri ditu, hala nola segurtasun digitalaren arloko mehatxuak eta ziberjazarpena. [Zimbabweko eta Ugandako giza eskubideen defendatzaileek orain dela gutxi egindako azterlan](#), baten arabera, estatuak gero eta zaintza estuagoa egiten du, miaketa-tresna sofistikatuen bidez. Intimidazio horren ondorioz, giza eskubideen defendatzaileek amore eman dute euren adierazpen-askatasunerako eskubideari dagokionez, autozentsuraren bidez. Era berean, amore eman dute biltzeko eta elkartzeko eskubideari dagokionez ere; hala, uko egiten diote pertsona jakin batzuekin erlazionatzeari edo haiekin nolabaiteko loturaren bat dutela pentsatzeari.

Giza eskubideen defendatzaileen aurkako eraso bortitzak bereziki ohikoak dira gatazka eremuetan. Orain dela gutxi, **Kongoko Errepublika Demokratikoaren** ekialdean gora egin du indarkeriak, M23 talde armatua berragertu baita, ustez, Ruandako armadaren babesarekin. Horrek arrisku larrian jarri ditu eskualde horretan lan egiten duten giza eskubideen defendatzaileak. M23 taldeak Goma (Ipar Kivu probintziako hiriburua) hartu zuen 2025eko urtarrilaren 27an, eta, gerora, matxinoek Bukavuren (Hego Kivu probintziako hiriburua) gai-

neko kontrola hartu dute. Hala, are gehiago ahuldu da Kongoko Gobernuak eskualdean zuen autoritatea. Giza eskubideen defendatzaileek mehatxu larriak jasan dituzte, hala nola intimidazioa, desagerpen behartuak eta erailketa estrajudizialak. Horietako askok alde egin dute eskualdetik, eta horrek are gehiago zailtzen du gehiegikeriak dokumentatzea eta kaltetutako komunitateei laguntzea. Bien bitartean, Sudango egungo gatazkak (batez ere, Sudango indar armatuen eta laguntza azkarreko indarren artekoak) ondorio asko izan ditu eskualde mailan, eta horrek are gehiago larriagotu du Afrika erdialdeko eta ekialdeko ezegonkortasuna. Gatazkak desplazamendu masiboak eragin ditu, eta **Sudango** milaka errefuxiatuk ihes egin dute alboko herrialdeetara. Egoera honek presio gehigarria eragin die baliabide humanitarioei, eta are gehiago zaildu da giza eskubideen defendatzaileen jarduna. **Etiopian**, indarrean dauden gatazka armatuak eta larrialdi-estatuko neurriek giza eskubideen urraketa larriak eragin dituzte, hala nola giza eskubideen defendatzaileen, kazetarien eta oposizioko kideen aurkako zaintza fisikoa eta lineako zaintza, jazarpena eta mehatxuak.

Praktika komertzial kaltegarrien (adibidez, ingurumenaren narriadura, lurrak metatzea edo lan-eskubideak urratzea) aurka egiten duten giza eskubideen defendatzaileek, sarritan, zuzeneko mehatxuak eta indarkeria jasaten dituzte. Enpresek, bereziki, erauzketa-sektorekoek, batzuetan elkar hartzen dute estatuko eragileekin edo legez kanpoko talde armatuekin, disidentzia zapaltzeko. Arazo horiei aurre egiten dieten giza eskubideen defendatzaileek demandak, difamazio-kanpainak eta eraso fisikoak jasotzen dituzte. Hala, [aktibismoaren baitako sektorerik arriskutsuenetako bat da](#). **Nigerian**, Nigerren Deltako giza eskubideen defendatzaileek legezko jazarpena eta indarkeria jasaten dituzte, hidrokarburoen ondoriozko kutsadura eta labore-lurren ingurumen-narriadura salatzeagatik. **Kongoko Errepublika Demokratikoan**, legez kanpoko meatzaritzaren, deforestazioaren eta eremu babestuetako (adibidez, Virunga Parke Nazionala) petrolio-ustiapenaren aurka egiten duten ingurumen arloko defendatzaileek erailketak, atxiloteta arbitrarioak eta mehatxuak jasan behar izaten dituzte talde armatuen aldetik zein estatuko segurtasun indarren aldetik. Kenyan, lurraren gaineko eskubideak defendatzen dituzten aktibista indigenek etxegabetze behartuak, kriminalizazioa eta poliziaren indarkeria jasaten dituzte; sarritan, turismoarekin eta kontserbazioarekin lotutako proiektuen testuinguruan. **Ugandan** eta **Tanzanian**, eskala handiko azpiegitura-proiektuen (adibidez, Afrika ekialdeko petrolio gordinaren oliobidea) aurka protesta egiten duten lurraren eta ingurumenaren defendatzaileek jazarpena, intimidazioa eta atxiloteta arbitrarioak bizi izan dituzte.

5. EMAKUMEEN, LGBTIQ+ KOLEKTIBOAREN ETA DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK DEFENDATZEA

Giza eskubideen emakumezko defendatzaileek eta giza eskubideen aktibisten talde zaurgarriek ere erronka asko dituzte Afrikan; bereziki, gatazka eremuetan eta lege zapaltzaileak dituzten herrialdeetan. **Kongoko Errepublika Demokratikoan, Sudanen eta Sahelen**, adibidez, giza eskubideen emakumezko defendatzaileek genero-indarkeria, lineako eraso misoginoak eta komunitatearen estigmatizazioa jasaten dituzte; bereziki, genero-berdintasuna eta bakea defendatzen dituztenean. Protection International erakundearen azken txostenak [Nigeriako](#) giza eskubideen hainbat emakumezko defendatzailearen testigantzak jasotzen ditu. Txostenaren arabera, erasoak areagotu egiten dira «maskulinitate militarizatuaren» edo «birilizazioaren» ondorioz. Kontzeptu horrek nabarmentzen duenez, ikuspegi oldarkorrak eta gizonengan zentratuak gailentzen dira gatazkak ebazteko eta gizartea kontrolatzeko orduan. Testuinguru horietan, giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeek berebiziko funtzioa dute genero-arau kaltegarri horiek deseraikitzen, bakea eraikitzeko ikuspegi alternatiboak eta ez-oldarkorrak sustatzearen bidez, eta elkarlana, justizia eta berdintasuna azpimarratuz.

Era berean, LGBTIQ+ komunitatea, sexu-orientazioa, genero-identitatea eta genero-adierazpen aniztasuna (SOGI ingelesezko sigletan) defendatzen dituzten horiek jazarpen handiagoa bizitzen dute homosexualitatearen aurkako legeak dituzten herrialdeetan, hala nola **Ugandan** eta **Ghanan**. Herrialde horietan gero eta gehiago kriminalizatzen da LGBTIQ+ kolektiboaren eskubideak defendatzea, «Mendebaldearen plan» gisa ulertzen baitute. Testuinguru horietan, giza eskubideen defendatzaileek atxilotetak, indarkeria eta jazarpen publikoa jasaten dituzte; hori dela eta, horien lana bereziki arriskutsua da. Orain dela gutxi aniztasunarekin, inklusioarekin eta ekitatearekin lotutako programak desfinantzatu ziren, USAIDen jarduerak blokeatzearen ondorioz. Horrek kaltetu egin ditu giza eskubideen defendatzaileak babesteko programa asko eta [Afrikako hainbat herrialdetan](#) LGBTIQ+ komunitatearen eskubideen alde borroka egiten duten gizarte zibileko erakunde asko. Europako gobernuak iragarri bezala finantzazio instituzionala murrizten bada, ziur asko, sakondu egingo dira krisia eta segurtasunik ezaren sententzioa, eta hazi egingo dira giza eskubideen defendatzaileen arrisku posibleak.

Desgaitasunak dituzten giza eskubideen defendatzaileek ere erronka berdingabeei egiten diete aurre. Ondorioz, horien lana are zailagoa eta arriskutsuagoa bihurtzen da. Giza eskubideen defendatzaile guztiek dituzten arriskuez gain (adibidez, jazarpena, intimidazioa

eta indarkeria), irisgarritasun fisikorik eza, estigma soziala eta egokitutako babes-mekanismoen falta pairatu behar dituzte horiek. Oztopo horiek, mehatxuen aurreko zaurgarritasuna handitzeaz gain, laguntza bilatzeko eta defentsa-ahaleginetan guztiz parte hartzeko duten gaitasuna mugatzen dute. *Protection International* erakundeak [desgaitasuna duten giza eskubideen defendatzaileei](#) buruz argitaratutako gidaren (2024) arabera, giza eskubideen defendatzaileak babesteko programa askok ez dituzte kontuan hartzen desgaitasuna duten defendatzaileen behar espezifikoak. Etxe seguruak, larrialdiko birkokatze-programak eta babes-tresna digitalak, askotan, ez dira irisgarriak izaten. Ondorioz, laguntza egokirik gabe geratzen dira krisi-garaietan. Kasu batzuetan, erasoen berariazko jomuga izaten dira desgaitasuna duten giza eskubideen defendatzaileak. Izan ere, euren muga fisikoak edo sozialak direla eta, isiltzeko errazagoak direla uste dute erasotzaileek.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen arloko aurrerapen berri batek aukera berri bat eskaintzen du desgaitasuna duten giza eskubideen defendatzaileen babesa indartzeko. 2024an, Desgaitasunari buruzko Afrikako Protokoloa ([African Disability Protocol, ADP](#)) **juridikoki loteslea bilakatu zen Afrika osoan**. Pauso garrantzitsua izan zen desgaitasuna duten pertsonen eskubide-berdintasuna eta babesa bermatzeko. Afrikako Giza eta Herrien Eskubideen Batzordeak ezarritako protokoloak praktika kaltegarrien, diskriminazioaren eta indarkeriaren aurrean babesteko dei egiten du. Hortaz, tresna baliagarria izan daiteke desgaitasuna duten giza eskubideen defendatzaileentzako babes indartsuagoen alde egiteko.

6. AFRIKAKO GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO MEKANISMO OFIZIALAK

6.1. Nazioarteko eta eskualdeko babes-mekanismoak

Nazioarteko mekanismo eta prozedurez gain (adibidez, Nazio Batuek ezarritakoak, NBERen giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko Errelatore Berezia barne), Afrikako kontinenteak eskualde mailako mekanismo bat sortu du **Afrikako Giza eta Herrien Eskubideei buruzko Gutunak** 1981ean finkatutako giza eskubideak babesteko. Kontinentean giza eskubideak babesteko araudi esparrua ezartzen du Gutunak, eta **Afrikar Batasunaren** barruko erakunde nagusietako batzuek berrikusi dute. Giza eskubideen babesari eta sustapenari dagokienez, **Afrikako Giza eta Herrien Eskubideen Batzordea** (AGHEB) da mekanismo nagusia, 1987an sortua. AGHEBaren egoitza Banjulen (Gambia) dago, eta errelatore bereziak eta hainbat gai lantzen dituzten lantaldeak ditu.

✓ [Giza eskubideen defendatzaileei buruzko errelatore bereziaren](#) karguak (Afrikako errepresalien gaineko puntu fokala da) funtsezko funtzioa du giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoen zaintzan eta horien babesaren defentsan. Gaur egun Rémy Ngoy Lumbu irakasleak du kargu hori, eta honakoa da haren egitekoa:

- Afrikako giza eskubideen defendatzaileen gaineko informazioa bilatzea, jasotzea eta aztertzea, eta horretan oinarrituta jokatzeta.
- AGHEBaren ohiko saio bakoitzean txostenak aurkeztea.
- Estatu kideekin, giza eskubideen erakunde nazionalekin, dagozkion gobernuarteko organismoekin, giza eskubideen defendatzaileak babesteko nazioarteko eta eskualdeko mekanismoekin eta beste interesdun batzuekin lankidetzan aritzea eta hitz egitea.
- Giza eskubideen defendatzaileak hobeto babesteko estrategiak garatzea eta gomendatzea, eta gomendioen jarraipena egitea.
- Afrikako Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Nazio Batuen Adierazpenaren gainean sentsibilizatzea eta haren aplikazioa sustatzea.

2024aren hasieran, [Errelatore Bereziak Afrikako Giza Eskubideen Defendatzaileen Funtzioa eta horien Babesa Sustatzeko Adierazpenaren zero proiektua](#) aurkeztu zion AGHEBari. Dokumentu horrek Afrikako giza eskubideen defendatzaileen behar espezifikoak jarri zituen aurrean. Giza eskubideen defendatzaileak nor diren definitzen du, horien eskubideak deskribatzen ditu eta estatuek horiekiko dituen betebeharrak aipatzen ditu. Estatuak giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak errespetatzeko, sustatzeko eta babesteko erantzukizuna eta ezinbesteko betebeharra dituela gogoratzen du adierazpenak. Aldi berean, estatukoak ez diren alderdi interesdunek (enpresa transnazionalak eta estatukoak ez diren gainerako enpresa komertzialak eta talde armatuak barne) ere pertsona guztien (giza eskubideen defendatzaileenak barne) giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatzeko erantzukizuna dutela nabarmentzen du. Era berean, nabarmendu beharrekoa da estatuek giza eskubideen aldeko erakunde nazional independenteen sorrera babesteko betebeharra dutela, [Marrakexeko Adierazpenaren](#) (2018) arabera. Horrez gain, Afrikako giza eskubideen defendatzaileek ingurune seguru eta apropos batean lan egin dezaten bermatzeko neurriak hartzeko betebeharra dute, defendatzaile horiek ez dezaten izan indarkeria, mehatxuak, intimidazioa, errepresaliak, diskriminazioa, zapalkuntza, jazarpena eta zaintza arbitrarioa edo legez kanpokoa jasateko beldurrik. AGHEB zirriborro berri bat prestatzen ari da, iaz adituen eta gizarte zibileko erakundeek aldetik jasotako informazioan oinarrituta.

Giza eta Herrien Eskubideei buruzko Afrikako Auzitegia giza eskubideen eta Afrikako herrien babesa bermatzen du. Horretarako, giza eskubideen urraketen gainean irizpena ematen du, eta epai lotesleak igortzen ditu. 2004an sortu zuten eta Arushan (Tanzania) du egoitza. AGHEBaren eta Afrikako Auzitegiaren funtzioak osatzen ditu. 34 estatuk berretsi dute Afrikako Auzitegia sortzeko protokoloa, baina horietako zortzik bakarrik onartu dute partikularren eta GKE-en auziak ezagutzeko duen eskumena; hortaz, haren inpaktua mugatua da¹.

Orokorrean, giza eskubideen eskualde mailako mekanismoek oso baliabide gutxi izaten dituzte eta ez dute botere hertsatzailerik izaten. Eraginkorrak izateko, borondate politikoa, finantzaketa egokia eta gizarte zibilaren kolaborazio aktiboa beharko lirateke.

¹ Burkina Faso, Gambia, Ghana, Guinea Bissau, Mali, Malawi, Niger eta Tunisia.

6.2. Babes-politika nazionalak

Babes-mekanismo horiez harago, ugaritu egin dira estatuek zuzendutako eta giza eskubideen defendatzaileak babestera bideratutako egitasmo nazionalak. Esaterako, **Boli Kostan** lege nazional bat ezarri zuten 2014an, horiek babesteko, eta azkena **Kongoko Errepublika Demokratikoa** izan da, 2023an. Azken hamar urteetan, Afrikako estatu batzuek aurrerapausoak eman dituzte politika publiko mota horiek ezartzeari dagokionez (adibidez, **Nigerrek** 2022an), baina horien aplikazioak eskasa izaten jarraitzen du sarritan. Hori da, esaterako, **Maliren** eta **Burkina Fasoren** kasua. Aurreko hamarkadan lege nazionalak ezarri zituzten, baina prozesu horiek alde batera utzi dira. Erronka horiek larriagotu egin dira **Sahelgo** panorama geopolitikoaren eraldaketa sakonen ondorioz. Giza eskubideen agenda asko atzeratzea eragin du horrek. Hala, ahuldu egin dira konpromiso instituzionalak, eta murriztu egin da giza eskubideen defendatzaileek modu seguruan eta eraginkorrean jokatu ahal izateko espazioa.

Eskualdea	Herrialde kopurua	Politika onartuta duten herrialdeak	Eztabaidetan dauden herrialdeak	Prozesuak gelditu edo bertan behera utzi dituzten herrialdeak
AFRIKA	 54tik 22	Boli Kosta Niger, Kongoko Errepublika Demokratikoa	Benin, Kamerun, Afrika Erdiko Errepublika, Kenya, Liberia, Madagaskar, Mauritania, Nigeria, Ruanda, Senegal, Sierra Leona, Tanzania, Togo, Uganda, Zambia	Burkina Faso, Yibuti, Ginea, Mali
AMERIKA	 30etik 10	Brasil, Kolonbia, Ekuador, Honduras, Mexico, Peru	Txile, Paraguai	El Salvador, Uruguai
ASIA	 45etik 10	Mongolia, Nepal, Pakistan	Georgia, Kazakhstan, Filipinak, Thailandia	Afghanistan, India, Kuwait
EUROPA	 46tik 3	0	Grezia, Moldavia	Albania
GUZTIRA	 45	 12	 23	 10

Iturría: [The Worldwide Growth of National Policies for the Protection of Human Rights Defenders: A current overview and the challenges ahead](#), Protection International (2022ko abuztua)

Latinoamerikan bezala (bertan, giza eskubideen defendatzaileak babesteko mekanismoak eta legeak lehenagotik existitzen dira), Afrikako egitasmoetan ere arrakala dago aplikazioari dagokionez. Mekanismoak eta legeak badiren arren, defendatzaileek erasoak eta oldarraldiak jasaten jarraitzen dute, inpunitate maila handiarekin. Adibidez, giza eskubideen defendatzaileak babesteko legea ezarri eta handik ia zazpi urtera, 2021ean, **Boli Kostako** Gobernuak [ministerioarteko agindu](#) bat eman zuen, Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Batzorde bat eratzeke. Hau da, bost ministerio eta gobernu-erakunderen ekintzak koordinatzen dituen babes-mekanismo bat.

Kongoko Errepublika Demokratikoan, legediak estatuko agintarien asmoen adierazpen bat dirudi, giza eskubideen defendatzaileak eta horiek giza eskubideak defendatzeko duten eskubidea babesteko modu eraginkor bat baino gehiago. 2023ko ekainean giza eskubideen defendatzaileak babesteko [lege nazional](#) bat ezarri aurretik, maila baxuagoko legedi bat ezarri zen, probintzia mailako bi legezko abisurekin, Hego Kivu eta Ipar Kivu probintzietan. Dena den, legezko tresna horrek hainbat erronka ditu. Adibidez, betebeharrak administratiboak inposatzen dizkiete giza eskubideen defendatzaileei (derrigorrezko erregistroa eta urtean behin jardueraren txostenak aurkeztea; jarduerak monitorizatzeko eta, ziur asko, galarazteko erabil litezke txosten horiek). Legeak ez du jasotzen babesaren definiziorik, giza eskubideen defendatzaileen beharrak eta horiek lan egiten duten testuinguruak lente intersektional batetik lantzen lagunduko duenik. Hala, xedapen gehiago dira giza eskubideen defendatzaileen betebeharrak zehazten dituztenak, horien eskubideak zehazten dituztenak baino. Horrek giza eskubideen defendatzaileen kriminalizazioari laguntzen dio.

Aplikazioaren arloko arrakala horrekin amaitzeko eta giza eskubideen defendatzaileak modu eraginkorrean babesteko, borondate politikoa behar da. Giza eskubideen defendatzaileek gizarte demokratikoak eta justuagoak eraikitzen zer funtzio betetzen duten onartu behar dute politikariek eta gobernu funtzionarioek.

7. AFRIKAKO GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO GIZARTE ZIBILAREN EGITASMOAK

Aurrez identifikatu ditugun gabezia horiei aurre egiteko, afrikar gizarteetako hainbat sektore oso proaktiboak izan dira, eta herrialdeen barruan eta eskualde mailan elkartasuna sustatzen duten estrategiak garatu dituzte. Egitasmo nazionalen adibideak ere badira, adibidez, Senegalgo *Y'en a marre* mugimendua. [Résidence Karibuk](#) sortu zuen 2024an, kontinente osoetik etorritako eta arrisku egoeran dauden giza eskubideen defendatzaileak eta militanteak aldi baterako babesteko.

7.1. Koalizio nazionalak

Nazio mailako sare eta koalizioek barne hartzen dituzte giza eskubideen defendatzaileak eta gizarte zibileko erakundeak, oinarrian eta herrialde osoan; adibidez, [Boli Kostan](#), [Kenyan](#) eta [Nigerian](#), batzuk aipatzearen. Nazio mailako sare horiek funtzio garrantzitsua izan dezakete, bai nazioarteko emailak eta bazkideek gizarte zibileko erakundeen gaitasunak garatzeko emandako baliabideak bideratzeko orduan, bai giza eskubideen defendatzaileak eta horiek giza eskubideak defendatzeko duten eskubidea babesteko politika publikoak ezartzeko eta horien jarraipena egiteko orduan. Halaber, sare horiek legedi murritzalea zaintzen dute, eta kideak mobilizatzen saiatzen dira, legedia indargabetzeko edo aldatzeko.

Koalizio eta sare nazional horiek Afrikako eskualde mailako sareekiko loturen bidez indartzen dute euren ahalmena. Eskualde mailako sare horiek giza eskubideen defendatzaileen egoera gainbegira dezakete, baita horien lanari zuzendutako erasoekin lotutako joerak ere.

7.2. Afrikako eskualde-sareak

Afrikako eskualde-sareen egitura bakarra da munduan. Baliabide mugatuak dituzte eta askotariko kide eta beharren oinarri bat koordinatu behar dute, baina sare horiek plataformak eskaintzen dituzte elkarri laguntzeko, baliabideak partekatzeko, giza eskubideen defendatzaileen arteko defentsa koordinaturako eta, are, arrisku-egoeran dauden horiek aldi baterako birkokatze².

² Defendatzaile afrikarren sareak Ubuntu Hub Cities egitasmoa koordinatzen du. Arriskuan dauden Afrika osoko (Tunisia, Praia, Abdiyan, Akkra, Kampala, Pretoria, Johannesburg eta Lurmutur Hiria) giza eskubideen defendatzaileak hirian birkokatze egitasmoa da. Ikusi: <https://africandefenders.org/what-we-do/hub-cities/>.

Shelter Cityk aldi baterako birkokatzerako beste egitasmo bat zuzentzen du Afrikan, bi hiritan: Benin eta Tanzania. Ikusi: <https://sheltercity.org/>.

Gaur egun bost daude, eta [African Defenders](#) sare panafrikarraren bidez koordinatzen dituzte ekintzak.

1. Afrika Ekialdeko eta Afrikako Adarreko Giza Eskubideen Defendatzaileen Sareak, [Defend Defenders](#), izenekoak, hainbat herrialdetako kideak ditu: Burundi, Tanzania, Kenya, Ruanda, Uganda, Hego Sudan, Sudan, Etiopia, Eritrea, Somalia, Somalilandia eta Djibuti.
2. Erdialdeko Afrikako Giza Eskubideen Defendatzaileen Sareak (**Réseau des Défenseurs des Droits Humains en Afrique Centrale**, [REDHAC](#)), berriz, Erdialdeko Afrikako giza eskubideen defendatzaileak biltzen ditu: Kamerun, Txad, Gabon, Sao Tome eta Principe, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Afrika Erdiko Errepublika, Ekuatore Ginea eta Kongo Brazzaville.
3. Mendebaldeko Afrikako Giza Eskubideen Defendatzaileen Sareak (**West Africa Human Rights Defenders Network** [AHRDN/RDDHAO](#)) plataforma bat eskaintzen die honako herrialdeetako giza eskubideen defendatzaileei eta gizarte zibileko erakundeei: Benin, Burkina Faso, Cabo Verde, Boli Kosta, Gambia, Ghana, Ginea, Ginea Bissau, Liberia, Mali, Mauritania, Niger, Nigeria, Senegal, Sierra Leona eta Togo.
4. Afrika iparraldean, [Kairoko Giza Eskubideen Azterketen Institutuak](#) honako herrialdeetako giza eskubideen defendatzaileak biltzen ditu: Egipto, Tunisia, Moroko, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, Aljeria, Sudan eta Libia.
5. Hegoaldeko Afrikako Giza Eskubideen Defendatzaileen Sareak (**Southern African Human Rights Defenders Network** ([SAHRDN](#)/RDDHAA) herrialde hauetako defendatzaileak konektatzen ditu: Zimbabwe, Lesotho, Mozambique, Angola, Malawi, Zambia, Hegoafrika eta Botswana.

8. AMAIERAKO GOGOETAK

Afrikako giza eskubideen defendatzaileen babesak erronka larria izaten jarraitzen du, eta ikuspegi zabala eta maila anitzekoa behar du. Bide honetan, egun hauetako eztabaidek kontinente osoko giza eskubideen segurtasuna eta aintzatespena bermatzeko gai garrantzitsuak azpimarratuko dituzte.

Giza eskubideen defendatzaileen babesak premiazko ekintza zehatzak eskatzen ditu. Esparru juridikoak eta instituzionalak badiren arren, horien aplikazioak inkoherentea izaten jarraitzen du. Hori dela eta, funtsezkoa da aplikazio-mekanismoak eta kontuak emateko mekanismoak indartzea. Komunitatean oinarritutako babes-sareek berebiziko garrantzia dute giza eskubideen defendatzaileen segurtasuna bermatzeko, eta agerian uzten dute gizarte zibileko ekimenak eta nazioarteko lankidetzak babestu behar direla. Era berean, giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeek, LGBTIQ+ aktibistek eta desgaitasuna duten defendatzaileek arrisku handiagoa dutela kontuan hartuta, babes-estrategiak horietara egokitu behar dira. Bitartean, lege murriztaileek eta jazarpen politikoak euren lana kriminalizatzen jarraitzen dute. Ondorioz, bidezko babes legalak ziurtatzera eta legedi kaltegarria indargabetzera bideratu behar dira defentsa-lanak. Azkenik, kontinente osoan giza eskubideen defendatzaileak modu jarraituan babestuko direla bermatzeko, funtsezkoa da laguntza iraunkorra izatea, epe luzeko finantzaketaren, laguntza teknikoaren eta nazioarteko elkartasunaren bidez.

Elkarriketa, elkarlana eta ekintza estrategikoa sustatuz, jardunaldi hauek funtsezko urratsa izango dira kontinentean giza eskubideen defendatzaileen segurtasuna, erresistentzia eta zilegitasuna indartzeko eta, aldi berean, haien beharrak eta errealitateak benetan islatzen dituzten politikak eratzeko. Giza eskubideen defendatzaileen, erakundeen eta gizarte zibileko eragileen arteko elkarlana indartzeko abiapuntua izango da, modu horretan Afrikako giza eskubideen defendatzaileentzat ingurune seguru eta aproposagoa eraikitzeko. Hain zuzen ere, Euskadiko eta Afrikako lankidetzaren eta elkartasunaren arloko eragileen artean zubiak eraikitzea da konferentzia honen helburu nagusietako bat, elkar ulertzea eta elkarren artean ezagutzak eta esperientzia partekatzea sustatuko duten loturak indartze aldera. Elkarlan horiek sustatzearen bidez, egitasmo bateratuak sortzea espero da, erronka komunei aurre egiteko eta epe luzera begira giza eskubideen defendatzaileak babesten laguntzen jarraitzeko.

ERREFERENTZIAK

Giza eskubideen defendatzaileek Afrikan dituzten arrisku nagusiei eta mehatxuei buruz:

DefendDefenders, [Human Rights Defenders in Need of Defense: A Field Report on the Protection and Effectiveness of HRDs in West and East Africa and the Horn.](#)

ProtectDefenders.eu, [Navigating Regional Challenges in Africa.](#)

Southern Africa Litigation Centre, [The role of the judiciary in advancing human rights in Southern Africa: A case study of Zimbabwe.](#)

Amnesty International, [The State of the World's Human Rights: April 2024.](#)

Human Rights Watch, [World Report 2024.](#)

Daragh Murray (et al.). [The Chilling Effects of Surveillance and Human Rights: Insights from Qualitative Research in Uganda and Zimbabwe,](#) Journal of Human Rights Practice, 16. liburukia, 1. zenbakia, 2024ko otsaila, 397-412 orrialdeak.

LITE-Africa, [Understanding the Unique Situation of Human Rights Defenders in Africa.](#)

DefendDefenders. [Biannual report October 2023 - April 2024.](#)

Southern Africa Litigation Centre, [Challenges Facing Human Rights Defenders in Africa.](#)

Jarduera komertzialekin lotutako mehatxuei buruz:

Business & Human Rights Resource Centre, [Human rights defenders in Africa: Threats, challenges, and how to support.](#)

International Land Coalition, Rights and Resources Initiative, [Paying the Price: A Study on Criminalization of Land and Environmental Rights Defenders in East Africa.](#)

Bakearen eraikuntzan lan egiten duten giza eskubideen defendatzaileen babesari buruz:

Protection International, [PI Voices for Peace: Nigeria.](#)

Giza eskubideen emakumezko defendatzaileen babesari buruz:

Protection International, [Lignes directrices Juin 2024.](#)

Protection International, [Les mouvements de femmes en RDC: Executive summary.](#)

Desgaitasunak dituzten giza eskubideen defendatzaileen babes-beharrei buruz:

Protection International, [PI guide on HRDs with disabilities.](#)

Espazio zibikoarekiko eta giza eskubideen defendatzaileentzako ingurune egokiekiko mehatxuei buruz:

Protection International, [The criminalisation of la Lucha movement in DRC: Criminalisation Series 3.](#)

Protection International, [Criminalisation in Kenya.](#)

Giza eskubideen defendatzaileak eta horiek giza eskubideak defendatzeko duten eskubidea babesteko politika publikoei buruz:

Protection International, [PI Worldwide: Growth of public policies.](#)

FOCUS Observatory, [HRD Protection in Africa.](#)

Protection International, [Webinar on HRDs in Africa.](#)

Protection International, [Public policies for HRDs in DRC.](#)

DefendDefenders, [Report of the Study on the Situation of Women Human Rights Defenders in Africa.](#)

ACHPR, [Regional Mechanisms for HRD Protection in Africa.](#)

Protection International erakundeak garatutako ildoak eta babeserako eskuliburuak:

Protection International, [Protection manual for human rights defenders.](#)

Protection International, [A psychosocial approach to the protection of human rights defenders.](#)

Protection International, [A Critical Approach to Collective Protection: Taking Stock of Protection International's Experience.](#)

